

Espediente-kodea: 2025ZDK00021



NT200002494476000000001

ELORZA ARZA JON
LEZESARRI AUZOA 15, 00
20560 - OÑATI
GIPUZKOA

AKORDIO JAKINARAZPENA

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko uztailaren 24an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

"9.-: Landa-bideak hormigoitzeko 2025eko laguntza deialdiaren ebazpena (2025ZDK00021)"

Alkatearen 2025eko uztailaren 16ko proposamenak honela dio:

" Aitor Gerenabarrena jaunak (Nekazaritza-auzoak eta Ingurumen teknikariak eta batzordeko idazkariak) uztailaren 17an egindako bileran (CSV zkia: ESKUe7ac1a42-52f3-4d29-84fe-01d898737e8e) batzordeak honako PROPOSAMENA egin du

" 2025eko laguntza deialdia arautuko duten oinarri arautzaileak 1º eranskin bezala argitaratu ziren 2023/04/19ko GAOn, hain zuzen, Udal Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 30ean onartutakoak.

2025eko otsailaren 18an Landa Garapen batzordeak egindako bileran, zolatu gabeko landa-bideak hormigonatzeko diru-laguntzen 2025eko deialdia egiteko proposamena onartu zen eta 2025eko apirilaren 10eko Tokiko Gobernu Batzordeak proposamena onartu zuen.

Landa-bideak hormigoitzeko 2025eko laguntza deialdia 2025eko maiatzaren 22ko GAOn (BDNS: 831263 argitaratu zen.)

Deialdiaren arabera uztailaren 2an bukatu zen eskaerak aurkezteko epea.

Deialdiak xedatutako epearen barruan honako eskaerak aurkeztu dira:

Data	Sarrera zk.	Eskatzailea	Bidea	Aurrekontua BG
2025/05/23	3187	Jon Elorza Arza	Tantelu pottokaleku ustiatagirako baso- bidea	73.200,00 €
2025/05/26	3228	Arantzazu auzoa	Soroandietako baserrietarako auzobidea	Ez da aurkeztu

2025/05/29	3282	Arantzazu auzoa	Zapiarbe baserrietarako auzobidea	Ez da aurkeztu
------------	------	-----------------	-----------------------------------	----------------

Jon Elorza Arza jaunak aurkeztutako eskaerak, Pottokaleku ustiategian duen ukuilurako bidea zolatzea du helburu (600 ml inguru). Oinarri arautzaileen 2.1.a) atalak xedatutakoaren arabera, lehentasunezko nekazaritza ustialekuetara bideak laguntzen onuradun izan ahalko dira, honela ulertuta: *ustialekuan aurrera eramandako nekazaritza eta abeltzaintza jardueretatik datorren laneko errenta bateratua Nekazaritza Ministerioak ezarritako erreferentzia errentaren %10 adinakoa edo hori baino handiagoa dena*

20.059.003.0778 kodigoa duen Pottokaleku ustiategiak erreferentzia errentaren %1,27koa du, hortaz, ez du betetzen oinarri arautzaileek ezarritako muga.

Arantzazuko auzo-alkateak aurkeztutako eskaerak egun zolatuta dauden auzo-bideen inguruko konponketa eskaerak dira. Laguntza deialditik kanpo gelditzen dira aurretik zolatuta dauden bideak (3.1 art), hortaz, eskaerak ez dira diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Oinarri arautzaileen 4. artikulua *"diru-laguntzaren zenbatekoa"* diru-laguntza proposamenaren zenbatekoa arautzen du. 9. artikulua *"diru-laguntza emateko ebazpena"* arabera diru-laguntzaren ebazpena Udal Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio. 10. artikulua *"diru-laguntzak ordaintzea"* ordaintzeko modua xedatzen du eta, azkenik, 11. artikulua *"jarduketak egiteko epeak"* diru-laguntza zuritzeko eta gauzatzeko epea ezartzen du.

Hori guztia kontuan izanda eta balorazio-batzordeak gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak honako erabakia har dezala eskatu dio Udal Tokiko Gobernu Batzarrari:

1. Jon Elorza Arza jaunak aurkeztutako eskaera ez onartzea, lehentasunezko nekazaritza ustialekue izendatzeko baldintzak betetzen ez dituelako.
2. Arantzazuko auzo-alkateak aurkeztutako eskaerak ez onartzea, izan ere, deialditik kanpo gelditzen dira aurretik zolatuta dauden bideak (3.1 art).
3. Erabakiaren berri interesdunei eta Hazienda Batzordeari berri ematea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko go-bernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez."

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori, Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.

INPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko **AUZI-ERREKURTSOA** aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, **nahi izanez gero**, aurreko idatzian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtoaren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari (Helmuga digitaleko Kodea L01200599) **HILABETEKO EPEAN** jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsuak aurkezteari kalterik egin gabe.

MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo de **DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, **con carácter potestativo**, y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo dictó (Código digital de destino: L01200599), en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025ZDKO0021-TGB Jakinarazpena/JGL Notificacion (ELORZA,ARZA,JON)